

UDALAREN ERAIKIN ETA LOKALEN ERABILPENA ARAUTU ETA HORREN ALDERA TASAK EZARTZEN DITUEN ORDENANTZA

2002ko otsailaren 27ko 25. NAOn argitaratua

ATARIKO KAPITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Ordenantza honen xedea: Udalaren eraikin eta lokalen erabilpena arautzea eta horren aldera tasak ezartzea da ordenantza honen xedea.
2. art. Oinarria. Ordenantza hau Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 262. artikuluan xedatutakoaren babesean onetsi da. Ordenantza honen xedeko tasa 4/1999 Foru Legea aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 100. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da.
3. art. Ordenantza honen esparru objetiboa. Partikularrek erabil ditzaketen udal eraikin, lokal eta instalazio guztiei aplikatuko zaizkie ordenantza honen arauak, beti ere xede bereko ordenantza berariazkoa ez baldin badute.

I. KAPITULUA

Udalaren eraikin eta lokalak erabiltzeko arauak

4. art. Udalaren eraikin eta lokalak erabiltzeko interesa dutenek haren baimena lortu beharko dute aldez aurretik.
5. art. Baimena eskuratzen duten eskatzaileek, Udalaren eraikin eta lokalak erabiltzekotan, haien izaeraren eta xedearen arabera erabili beharko dituzte, baita bertan kalterik edo trabarik ez sortzeko maneran. Horrek ez du deusetan ukatzen, erabilpena zertarako eskatu zen, horren arabera erabilpen arrunt, arrazoizko eta egokiak eragin dezakeen higadura.
6. art. Erabiltzeko baimena zertarako eman zen, ezin izanen dira inola ere bestetarako erabili Udalaren eraikin eta lokalak.
7. art. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioen erabiltzaileek zainduko dute haien garbitasuna eta antolamendua. Egun bateko erabilaldiaren ondotik, garbitu eta altzariak eta barneko elementuak ordenatuko dituzte, beste hartzaile batzuek berehalakoan erabili ahal izan ditzaten.
8. art. Eraikina edo lokala erabiltzearen sartzeko giltza behar baldin bada, erabilpenaren eskatzaileak giltza hori itzultzeko ardura izanen du eta ez du inola ere haren kopiarik eginen, jaun alkateak baimendu ezean. Kopia ateraz gero, eraikin eta lokalen erabilaldia bukatutakoan itzuliko zaizkio Udalari.

9. art. Udalaren eraikin eta lokalak erabili nahi dituzten lagun edo entitateek idatziz eskatuko diote Udalari eta hauek zehaztuko: eskatzailea nor den jakiteko datuak, premiak, zenbat denboratan erabiliko den, okupatzaileen kopurua eta izenak eta erabilpenaren xedea.

Eskariari buruz ebazpena emateko behar adina agiri edo argibide osagarri eska dezake Udalak.

Eskatzaileak bat baino gehiago badira, erabilpenaren ondoriozko harremanak izaterakoan, horrexetarako izendatzen den lagunarekin edo, halakorik egin ezean, eskatzaileetan lehenbizikoarekin arituko da Udala.

10. art. Udalaren osoko bilkurak kasu bakoitzean bidezko deritzona erabakiko du, hauei begiraturik: eskatu diren bezalako eraikin edo lokalen eskuragarritasuna, okupatzaileen kopurua, helburua eta erabilpen denbora.

11. art. Udalak, legez onartzen diren moduetarik edozeinetan fidantza eratzea eska dezake. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak behar bezala erabili eta lagapenaren aitzin zeuden horretara lehengoratzeko betebeharrei erantzuteko izanen da fidantza. Halaber, lagatako eraikin, lokal eta instalazioetan kalte-galerarik eragiten bada, erabiltzaileek ordaindu beharko dituzten kalteordainen berme izanen da. Ordenantza hau aplikatuz zehapenik paratu behar baldin bada, horien ordainketari erantzuteko ere izanen da.

Eraikinak edo lokalak zenbat denboratarako lagatzen diren, horregatik likidatzen den tasaren erdia izanen da guttienez fidantzaren zenbatekoa eta tasa osoa gehienez.

12. art. Udalaren eraikinaren edo lokalaren erabilpena bukatutakoan, erabiltzaileek horren berri emanen diote Udalari. Udalak nahi hainbat ikuskapen egin dezake, erabiltzaileek Ordenantza honetan eta indarra duen gainerako legerian ezarritako beharkizunak bete ote dituzten frogatzeko.

Erabiltzaileek ordenantza honetan ezarritako beharkizunak bete dituztela, kalte-galerarik ez dela eta zehapenik paratzea bidezko ez dela frogatuta, Udalak fidantza itzuliko du, horrelakorik eratzea eskatu baldin badu.

Kontrara gertatuz gero, bidezko diren erantzukizunak galdatuko ditu. Horrelakoetan, Ordenantza honetan ezarritako beharkizunak ez betetzetik, eragindako kalte-galeretatik eta bidezko diren zehapenetatik etor daitezkeen diru erantzukizunak ordaintzeko izanen da fidantza.

II. KAPITULUA

Erantzukizunak, arau-hausteak eta zehapenak

13. art. Erabiltzen diren udal eraikin, lokal eta instalazioen erabiltzaileek beren maltzurkeriagatik edo axolagabekeriagatik bertan sortzen diren kalte-galerak ordainduko dituzte.

14. art. Okupatzaileak bat baino gehiago badira, batera eta solidarioki izanen dute ordainketaren erantzukizuna, bai tasei, bai lokaletan, instalazioetan eta bertan izan daitezkeen ondasunetan eragindako kalte-galeren kalteordainei, baita, hala behar baldin bada, ezartzen diren zehapenei ere dagokienez.

15. art. Ondokoak arau-haustetzat hartuko dira:

- a) Udalaren eraikin eta lokalak haren baimenik gabe okupatzea.
- b) Ordenantza honetan ezarri bezala, baimena izanik okupaturiko lokal edo egoitza egunero garbitzeko lanak ez egitea.
- c) Erabilitako lokal eta instalazioei edo lokal horietan dauden ekipo eta gainerako ondasun higigarriei kalte egitea.
- d) Jaun alkatearen baimenik gabe, erabilitako eraikin edo lokaletan sartzeko giltzen kopiak egitea.
- e) Erabilitako eraikinak hustu eta berehala bertan sartzeko giltzak ez itzultzea.

16. art. Goian aipatu arau-hausteak eginez gero, ezarri beharreko zehapenak hauek dira:

- a) Aitzineko artikuluko a), b), d) eta e) ataletakoei, hirurogei koma hamaika (60,11) Euroko isuna ezarriko zaie.
- b) Aitzineko artikuluko c) atalekoei, kaltea edo galera zenbatekoa den, horrenbesteko isuna ezarriko zaie.

17. art. Aitzineko artikuluetan ezarritakoa betez ezar daitezkeen zehapenek ez dute deusetan ukatuko kalte-galerengatik bidezko den kalteordaina.

Aurreko artikuluetan aipatu erantzukizunak eta zehapenak bide exekutiboan gauzatu eta betearaziko dira.

III. KAPITULUA

Tasak Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak erabiltzeagatik

18. art. Zergagaia. Pertsona fisiko nahiz juridikoek, baita, nortasun juridikoa izan ala ez, erakunde edo entitateek ere, Udalaren lizentzia eskatu ondotik Udalaren eraikin, lokal eta instalazioak erabiltzea da tasa honen zergagaia.

19. art. Subjektu pasiboa. Aldez aurretik Olaztiko Udalaren baimena izanik haren lokalak egiazki erabiltzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak, elkarteak, kirol eta josteta elkarteak oro har, eta erakundeak, nortasuna juridikoa izan ala ez; horiek dira tasa hauen subjektu pasiboak.

Ez da ordenantza honen barnean egonen:

a) Eskoletako lokal eta instalazioak erabiltzea, baldin eta eskola orduen barnean eta ikastetxearen beraren baimenarekin bada, eta beti ere ofizialki onetsiriko hezkuntza programak garatu edo osatzearekin zerikusia duten jarduerak badira.

b) Eskoletako lokal eta instalazioak eskolaz kanpoko orduetan erabiltzea, baldin eta Ikasleen Gurasoen Elkarteak antolatua bada, eta beti ere Eskola Kontseiluak eta Udalak onetsirik badago.

20. art. Karga oinarria. Udalaren eraikin, lokal eta instalazioetako gelak zenbat orduz erabiltzen diren, kopuru hori izanen da karga oinarria.

21. artikulua. Tarifak.

2014ko otsailaren 74ko 40. NAOn argitaratua

Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

22. art. Tributu kuota.

Zerga oinarriari dagokion tarifa aplikatu ondokoa izanen da tributu kuota.

23. art. Salbuespenak.

2012ko urtarrilaren 24ko 16. NAOn argitaratua

Olaztin egoitza duten kultura, hezkuntza edo kirol elkarteek antolatutako doaneko jarduerak egiteko baldin bada, lokal horiengatik ez da ordaindu beharko, baldin eta ez badute behar Udalaren material tekniko nahiz zerbitzu teknikorik. Horrelakorik behar badute, entitate antolatzaileak ordaindu beharko du zerbitzu tekniko horren kostua.

Halaber, Udalak komenigarri iruditzen zaizkion salbuespenak erabaki ahalko ditu, entitate eskatzaileak kultur, gizarte edo ongintzaren aldetik duen interesari erreparatuta.

24. art. Sortzapena. Udalaren eraikin, lokal edo instalazioak erabiltzeko eskaria egiten den momentuan sortuko dira tasak. Lokalak egiazki erabili aitzin ordaindu beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek, bere testu osoa Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako baldintzak bete ondoan hartuko du indarra. Horren orde, ordenantza fiskal orokorrean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatutakoa aplikatuko da.

TARIFEN ERANSKINA

2017ko abenduaren 22ko 244. NAOn argitaratua

-Kultur Etxea erabiltzea.

ARETOAK	ASTELEHENETIK OSTIRALERA (JAIEGUNETAN EZ)		LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN
	08:30-14:30	14:30etatik aurrera	
Ekitaldi aretoa	24,85 euro/ordua	43,60 euro/ordua	49,80 euro/ordua
Informatika gela	20,75 euro/ordua	36,35 euro/ordua	41,55 euro/ordua
Erabilera anitzeko gelak	3,10 euro/ordua	5,40 euro/ordua	6,20 euro/ordua

Behar izanez gero aretoko zerbitzu teknikoak, aretoko ekipo teknikoak, sarreretako zerbitzua, eta abar, zein zerbitzu eskatu den haren kostua ordaindu beharko du subjektu pasiboak.

Behar izanez gero informatika gela, beste entitateek ematen dituzten ikastaro, lantegi edo antzekoetarako, eta parte-hartzaileendako doan baldin badira, entitate antolatzaileak Udalari ordaindu beharko dio 7,25 euro/ordua, gela erabiltzeagatik eta haren mantentze-lanetako gastuengatik.

-Udalaren beste edozein lokal erabiltzeagatik (ikastetxea, Sutegi etxea, eta abar), Kutur Etxeko ekitaldi aretoaren tarifa bera.

2017KO ABENDUAREN 22AN EGUNERATUA